

2006KO OTSAILAREN 23KO **OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta seiko otsailaren hogeita hiru, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Inazio Estensoro Eskisabel, Xanet Barreras Jauregi, Arantxa Zumelaga Agirre, Inazio Barandiaran Aldasoro, Amagoia Naldaiz Mingo, Kepa Goenaga Alikostes, Xabier Arrasate Aierbe, Gorka Lamy Insausti, Juan Manuel Serna Portugal eta Angel Olaso Villalba.

Igor Sarriegi Zumarraga eta Milagros Alvarez Novoa zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2006ko urtarrilaren 19an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Serna zinegotziak alkatetzaren ebazpenei buruzko hainbat argibide eskatzen ditu.

Alkateak eta idazkariak argibide horiek ematen dizkiote.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- MILAGROS ALVAREZ NOVOA ZINEGOTZIAREN KARGU UZTEA.-

Milagros Alvarez Novoa zinegotziak idatzia aurkeztu du udaletxean eta idatzi horretan adierazten du soil soilik zio pertsonalak direla medio, bere kargua utzi egiten duela.

Honen aurrean alkateak esaten du udala jakinaren gainean gelditzen dela eta Milagros Alvarez Novoak utzitako kargua betetzeko dagokion legezko prozedura abian jarriko dela.

Udal Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

IV.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRESPENAK KONTENTZIOSO-ADMINISTRATIBOETAN UDALA BERTARATZE ETA UZTEAREN INGURUAN.-

ALGAR, S.L.k jarritako kontentzioso-administratiboaren inguruan, alkateak, 2006ko urtarilaren 3ko datan, honako ebazpena luzatu du:

"Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiko 2. Sekzioak ALGAR S.L.k tartejarritako 1372/04 errekurtsoren berri izan du, Lazkaoko Udalak 2004ko maiatzaren 26an hartutako erabakiaren aurkakoa. Erabaki honen bidez LURZORU EZ URBANIZAGARRIAN UDAL ERRESERBARAKO LURSAILEN MUGAKETA PROIEKTUA -AMEBI ETA KANPANDEGI GUNEAK- behin-betikoz onartu zen.

Orainsu, aipatu Epaitegiko Sekzio berak, 2005eko urriaren 21ean emandako epaiaren irmotasuna berretsi du, akordio beraren aurka tartejarritako 1379/04 zbk.dun Errekurtsoran. Epaitzak Lazkaoko Udalak, 2004ko maiatzaren 26an hartutako akordioa baliogabetzen du, LURZORU EZ URBANIZAGARRIAN UDAL ERRESERBARAKO LURSAILEN MUGAKETA PROIEKTUA -AMEBI ETA KANPANDEGI GUNEAK- onartzen zuena.

Azaldutakoaren ondorioz, eta 1372/04 zbk.dun Errekurtsoren helburua, 1379/04 zbk.dun Errekurtsoren helburu bera izanik, Jurisdikzioaren Legeko 75. artikuluan aurrikusitako amoregitea erabakitzeko inguruabarrak batera biltzen dira.

Guzti hau dela eta, eta azaldutako inguruabarren ondorioz, Alkatetza honek bere eskurantzak erabiliz zera EBAZTEN DU:

LEHENA.- Lazkaoko Udalak ALGAR S.L.k tartejarritako 1372/04 zbk.dun Errekurtsoran amore ematea; Udalak 2004ko maiatzaren 26an, LURZORU EZ URBANIZAGARRIAN UDAL ERRESERBARAKO LURSAILEN MUGAKETA PROIEKTUA -AMEBI ETA KANPANDEGI GUNEAK- behin-betikoz onartuz hartutako erabakiaren aurkako errekurtsoa.

BIGARRENA.- Ebazpen hau Udal Osoko Bilkuraren berrespenpean jartzea egiten den lehen batzarrean."

Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, ebazpen hau berrestea erabakitzen du.

Jose Victor Arregi Imaz J. eta beste batzuk jarritako kontentzioso-administratiboaren inguruan, alkateak, 2006ko otsailaren 6ko datan, honako ebazpena luzatu du:

"Administrazioarekiko Auzietako Donostiako 1 Zbk.dun Epaitegiak, Alkatetza honek Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiaioetako 18H.A.ko 1B.U.ko Birpartzelazio Proiektua behin-betikoz onartuz eta aurkeztutako alegazioak ezestuz 2005eko azaroaren 28an emandako ebazpenaren aurka, Jose Victor Arregi Imaz eta beste batzuk tartejarritako errekurtsoko kontentzioso-administratiboaren berri emanez jakinarazpena bidali du Udal honetara.

Azaldutakoaren aurrean, Alkatetza honek bere eskurantzak erabiliz zera EBAZTEN DU:

- 1.- Administrazioarekiko Auzietako Donostiako 1 Zbk.dun Epaitegira eskatutako espedientearen egiaztatutako kopia foliatua bidaltzea.
- 2.- Espedientean interesatu direnak enplazatzea, 9 egunetako epean errekurtsioan demandatu bezala bertaratu ahal izateko.
- 3.- Udala prozedimentuan bertaratzea, Jon Orue-Etxebarria Iturri abokatua izanik."

Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, ebazpen hau berrestea erabakitzen du.

V.- HIRIGOIENGO BIRRURBANIZAZIO LANEN 5. ZERTIFIKAZIOA.-

Hirigoiengo Birrurbanizazio lanen obra zuzendaritza daraman Iñaki Laskurain Gisa-sola ingineruak (INJELAN, S.L.) lanen bosgarren zertifikazioa luzatu du. Bosgarren zertifikazioaren zenbatekoa BERROGEITA ZORTZI MILA ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITA HAMASEI EURO eta HAMAZAZPI ZENTIMOtakoa (48.896,17 €) da. Lan Hauek GAIMAZ, S.A. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak zertifikazioa aztertu eta bere oneritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Hirigoiengo Birrurbanizazio lanen bosgarren zertifikazioa onartzea erabakitzen du.

VI.- LAZKAO LANTZEN, S.A.REN KAPITAL HANDITZEA.-

Jarraian Lazkao Lantzen, S.A. udal elkartearen kapital handitze proposamenari buruz eztabaidatzen da.

Proposamena, kapital handitze horretan Lazkaoko Udalak Arau Subsidiarioetako 1 Sektorean (Orobione gunea) daukan bere jabetzako lursail eraikigarrietako bat ematea da. Ematea proposatzen den lursaila, 1 Sektoreko 1 Burutze Unitateko Birpartzelazio Proiektuko emaitzazko 3 zbk.dun lursaila da eta lursail honek, kapital handitze honetarako egin den baloraketaren arabera, MILIOI BAT ETA LAUROGEITA LAU MILA HIRUREHUN ETA HOGEITA BOST EURO ETA LAUROGEITA BOST ZENTIMOtako (1.084.325,85 €) balioa dauka.

Hona hemen Lazkao Lantzen, S.A.ren kapital handitzerako ematea proposatzen den lursailaren ezaugarriak:

EMAITZAZKO 3 ZBK.DUN PARTZELA

1.- Deskribapena:

Egoitza-finka urbanizagarria. 1.233m²-ko azalera du, eta 4.349m²-ko guztizko sabai aprobetxamendua dagokio, bizitegi, garaje eta merkatal erabilerekin.

Alde guztietatik, Ipar, Hego, Ekialde eta Mendebaldetik jabari publikoko lursailekin muga egiten du. Aipatu finkan tasatutako etxebizitzetara zuzendutako 3.117m² erai-ki ahal izango dira, eta garajeetara zuzendutako 1.232m².

2.- Hirigintz arauak:

Partzela honen titulartasunari atxikitako eskubide eta betebeharrak Lazkaoko Planeanamenduko Arau Subsidiarioetako eta 1. Sektoreko Zatikako Planeko zehaztapenek ezarritako mugen barnean burutu beharko dira.

3.- Kargak:

Erabilera publikoko mirabetzaren karga izango dute eraikiko den etxebizitza berriko ataripeek, lurpeko aprobetxamenduen gainean kokatutako guneeak eta sotorako sarbideak.

4.- Esleipena:

Finka honen domeinu osoa Lazkaoko Udalari esleitzen zaio %100,00ean.

5.- Jarritako finkarekin korrespondentzia:

Jarritako 3 zbk.dun partzelaren %83,30a.

6.- Hirigintz karga:

Hirigintz Kudeaketa Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoaren arabera, finka hau, izaera errealez, kooperazio sistemari atxikitako kargak betetzera eta gastuak ordaintzera behartua gelditzen da.

Finkak jasaten duen kargaren behin-behineko likidazioaren saldoa 273.142,96 €-koa da, eta Lazkaoko Udalari bere %100a dagokio.

Gaia aztertu ondoren, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

1.- Lazkao Lantzen, S.A.ren kapital handitzean, Lazkaoko Udalak bere jabetzakoa duen 1 Sektoreko 1 Burutze Unitateko Birpartzelazio Proiektuko emaitzazko 3 zbk.dun lursaila emateko proposamena onartzea.

2.- Alkatea ahalmentzea aurreko puntuan hartutako akordioa egikaritzeko Lazkaoko Udalaren izenean izenpetu beharreko dokumentuak izenpetzeko.

VII.- TAXIEN HIRI-TARIFAK.-

Gipuzkoako Taxisten Elkarteak 2006 urterako hiri-tarifen proposamena bidali du Udal honetara. Hiri-tarifa hauek Goierriko herri guztietarako berdinak planteatzen dira.

Hiri-tarifen proposamen hau, Udal Osoko Bilkurak onartzea erabakiko balu behintzat, Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Departamendura bidali behar da honek onar dezan, eta Goierriko Udaletako espediente guztiak GOIEKIren bidez izapidatu nahi dira.

Proposamenarekin batera auto-taxien ustiaketak dituen gastu eta sarreren azterketa bidali dute baita ere.

Guzti hau kontutan izanda, gaia aztertu ondoren, Udal Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako erabaki hauek hartzen ditu:

1.- 2006 urterako auto-taxi garraio zerbitzuetarako hiri-tarifa hauek onartzea:

HIRI - TARIFA					
1 TARIFA (astegun eta egunezkoa)			2 TARIFA (gauezko eta jaiegunetako)		
Bandera jeistea	Egindako kilometroa	Zai egindako ordua	Bandera jeistea	Egindako kilometroa	Zai egindako ordua
2,77	0,8684	16,59	2,77	1,3850	26,07

2.- GOIEKI ahalmentzea Lazkaoko Udalaren izenean espediente hau Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Departamenduaren aurrean izapidatu dezan.

VIII.- MINUSBALITUENTZAT EGOKITUTAKO 9 PLAZAKO IBILGAILUAREKIN TAXI ZERBITZUA EMATEKO BAIMENA.-

Jarraian Goierri guztian zerbitzua emango lukeen minusbalituen garraiorako egokitutako 9 plazako taxiari baimena emateari buruz eztabaidatzen da.

Gipuzkoako Taxien Elkarteak aurkeztutako idatzian esaten denez, taxi hau Antton Garmendia Iturbe Jaunak, N.A.N. 15.965.974-H, jarriko luke eta Garmendia Jauna prest legoke ezaugarri horiek dituen ibilgailua erosteko Goierriko herri guztietan zerbitzua emateko aukerarik baldin badu behintzat.

Hori horrela, Lazkaon proposatzen den zerbitzu hori ematea ahalbideratuko lukeen baimena ematea planteatzen da.

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren eta bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Antton Garmendia Iturbe Jaunari minusbalituentzat egokitutako eta bederatzizko plazako ibilgailuarekin taxi zerbitzua emateko baimena ematea erabakitzen du.

IX.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du aurreko Osoko Bilkuran futbol zelaiko obrako dokumentazioa eskatu zuela eta oraindik ez duela dokumentazio hori jaso.

Alkateak erantzuten dio berak nahi duen egunean gelditu direla biak eta dokumentazio hori eta behar dituen argibide guztiak emango dizkiola.

Barreras zinegotziak, kulturako presidente gisa, esaten du festak gerturatzen ari direla eta dantza egiteko entsaioekin hastea komeni dela eta lehen entsaioa martxoaren 2an izango dela, iluntzeko 7etan.

X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.